

ISSN: 2530-6561
2017ko apirila
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzaren eta
Garapenari Buruzko
Ikasketen Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak

Luis Guridi

Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak

Luis Guridi
Hegoa Institutua
Ekonomia Aplikatua I Saila

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Aurrekariak	5
3. Garapena, hazkunde ekonomikoa eta modernizazioa	6
4. Garapena eta egiturazko aldaketa	8
5. Garapena, pobrezia eta desparekotasuna	10
6. Iraunkortasuna eta garapena	12
7. Garapena eta gaitasunak: Giza Garapena	14
8. Generoa eta garapena	17
9. Ikuspegi postdesarrollistak	19
Bibliografia	21

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Xabier Gainza
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurrezaga
Iker Etxano
Mertxe Larrañaga
Elena Martínez Tola
Mikel Zurbano

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera:
teoriak, estrategiak eta adierazleak

Egilea: Luis Guridi

hegoak zabalduz - 1. zk. 2017 apirila

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.es

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.es

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia
138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.es

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak, Creative Commons lizentzia honekin argitaratzen dira:



Reconocimiento-NoComercial-SinObraDerivada 3.0 España.
Lizentzia osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Laburpena: Instituzio akademikoek, erakunde publikoek eta garapenerako lankidetzako erakundeek bultzatuta, azken hamarkadetan garapenaren inguruan izandako eztabaidetan, gizakiaren ongizatea eta gizartearen aurrerakuntzaren nondik norakoak aztergai nagusiak izan dira.

Garapenaren inguruan egon diren y ematen ari diren eztabaiden inguruko hausnarketak eta gogoetak aurkezten dira lan honetan, baina era laburbilduan eta sintetizatuan. Garapenaren inguruko ikuspegi bakoitza aztertzerakoan, bere jatorriaren testuingurua, ezaugarriak eta neurtzeko erabiltzen diren adierazle nagusienak azaltzen dira.

Hitz gakoak: Hazkundera, garapena, giza garapena, posgarapena, teoriak, iraunkortasuna, generoa, adierazleak..

Abstract: The idea of human welfare and the progress of human societies has been present in the debates on development in recent decades, promoted by academic institutions, political institutions and organizations of cooperation for development.

In a highly summarized and synthesized form this paper presents the main perspectives that have been and are present in the reflections and debates on development. The paper explains the context in which each of these views or perspectives on development emerged, its main defining characteristics and the main indicators used for its measurement.

Keywords: Growth, development, human development, post-development, theories, sustainability, gender, indicators.

1. Sarrera

Garapenari buruzko lehen teoriak formulatu zirenetik, eta XX. mendearen bigarren erdialdearen zati handi batean, garapenari buruzko eztabaidek eta azterketek dinamismo handia izan zuten, eta arlo akademikoetan eta nazioarteko instituzioen agendetan egon ziren. Hala ere, aurreko hamarkadaren amaieran, garrantzia galduz joan ziren, eta epe laburreko politiketan eta/edo errealitate berezien egiturazko azterketetan ardaztutako ikuspegiak gailendu ziren.

Krisi hori alde desberdinetatik azal daiteke, baina, besteak beste, aipatu ahal dira inguruan dugun globalizazio/mundializazio prozesuan izan diren aldaketa sakonak, eta izaera ekonomiko, sozial, kultural eta teknologikoko elementuak eragin-trukean dituzten garapen-prozesuen konplexutasuna, eskala globaletan eta, aldi berean, tokiko eskaletan dihardutelako.

Dena dela, garapenari buruzko pentsamendu ofizialak muga handiak izan ditu zenbait arazo handi interpretatzeko eta haiei ekiteko orduan; hain zuzen ere, ingurumenaren eta bizitzaren iraunkortasunak, desparekotasun sozialak eta bazterketa sozialak, eta ezegonkortasun eta krisi politiko orokorrek sortutako arazoei buruz ari gara –garatuztat hartzen diren gizarteetan ere bai–. Horren ondorioz, espazio berriak sortu dira garapenari buruz eztabaidatzeko, paradigma ofizialetik harantz joz, denbora luzez baztertuta egon diren ideia eta ikuspegi berriak barnean hartuta.

Lan honek ikuspegi laburtua eta sintetizatua eskaini nahi du, ezin baitzen bestela izan, azken sei hamarkadetan garapen nozioaren inguruan izan diren eztabaida nagusiei buruz; horrez gain, pentsamendu-joerak beren jatorrizko ingurunean aurkeztu nahi ditu, baita haiek definitzen dituzten elementuak, haien indar-guneak eta mugak ere.

2. Aurrekariak

Familien, hirien, herrialdeen edo erresumen oparotasuna handitzeko hartu beharreko neurriei buruzko kezka oso aspaldikoa da; esate baterako, [Chanakia](#)¹ pentsalariak bazuen (K.a. 350-283, gutxi gorabehera) India zaharrean, eta [Aristoteles](#) pentsalariak ere bai Grezia klasikoa (K.a. 384-322). Gero, merkantilistek – [Azpilicueta](#) (1492-1586), [Petty](#) (1623-1687), [Colbert](#) (1619-1683)– eta egile fisiokratak –[Quesnay](#) (1694-1774) eta [Turgot](#) (1727-1781)– lehen teoria ekonomikoak ezarri zituzten, gertaera ekonomikoak azaltzeko atal gisa. Adam Smithek [Nazioen Aberastasuna](#) (1776) idatzi zuenean, hasiera eman zitzaion gaurdaino heldu den garapenari buruzko eztabaidari.

XVIII. mendeko eta XIX. mende hasierako ekonomista klasikoek **epe luzeko hazkundearen arrazoiak eta ondorioak aztertze**ko kezka hartu zuten. Haien ustez, kapitala metatzea eta soberakina berriz inbertitzea zen hazkunde ekonomikoaren eta, beraz, nazioen aberastasunaren eragile nagusia. Giza aurrerapenaren aldeko faktoreak ezagutzeko kezka hori ezin da ulertu, modernitateari eta Industria Iraultzaren ondoriozko ekoizpen-sistemetan izandako aldaketa sakonei lotuta sortutako unibertso filosofikoa aintzat hartu gabe.

Arrazoi eta ezagutza zientifikoa errealitatera hurbiltzeko zeuden beste prozesu batzuen gaineratik gailentzean, gizartea eta hark naturarekin dituen harremanak ulertzeko forma berezi bat sendotu zen; eta industrializazioak sorrarazitako eraldatzeko gaitasun izugarriek baietsi egin zuten aurrerapen unibertsalaz hausnartzeko aukerak zeudela, aurreko garaietan –urritasunak eta intuizioan edo erlijioan oinarritutako munduari buruzko azalpenak nagusi ziren garaian– izandako ezkortasuna eta konformismoa bazter utzita.

Ilustrazioak aurrez zeuden pentsamenduaren mugak hautsi, eta bere emantzipazioa aldarrikatu zuen, arrazoi zientifikoaren bidez. Bestalde, Industria Iraultzak oso emankorrak ez ziren tekniken ondoriozko muga asko suntsitu zituen. Ikatz, altzairu eta ehunen ekoizpenean izandako hazkunde esponenziala aintzat hartzea, trenbideen kilometroak etengabe nola biderkatu zituzten ikustea, edo Europako biztanleak Amerikara

1 Urdinez agertzen diren hitz edo esaldiak hiperesteka dutela adierazten dute.

samaldaka nola joan ziren gogora ekartzea –XIX. mendeko bereizgarriak diren gertaerak denak– aski da garai hartako baikortasuna eta ekoizpen-teknika berrien aukeretan zuten fede ia itsua ulertzeko.

Biztanle askoko gizarteen beharrak asetzeko gaitasuna mende luzez baldintzatu zuten muga estuetako asko hautsi ziren, eta beste garai bat hasi zen: gizateriak, behar bezala antolatuz gero, “oparotasun orokorraren” onura hartuko zuen, “herriaren beheko mailek ere bai”, Adam Smithen arabera; edo “aurreko belaunaldi guztiek batera baino produkzio-indar masiboagoak eta handiagoak edukiko zituen”, Karl Marxen hitzetan.

1. Taula. Antzinateko eta ekonomia klasikoko egile batzuk eta haien obra nagusiak	
Egilea	Argitalpena
Chanakia Pandit (K.a. 350-283, gutxi gorabehera)	Artha-shastra
Aristoteles (K.a. 384-322)	Etika Nikomakori; Politika (Politika)
Ibn Jaldún (1332-1406)	Al-Muqaddima (1377)
William Petty (1623-1687)	Verbum Sapienti (1665); Another Essay in Political Arithmetick concerning the Growth of the City of London (1683)
François Quesnay (1694-1774)	Tableau économique (1758)
Adam Smith (1723-1790)	Sentimendu moralen teoria (1759); Nazioen aberastasuna (1776)
Karl Marx (1818-1883)	Grundrisse (1857); Kapitala, I. liburukia (1867); Manifestu Komunista (1848); Kapitala, II. liburukia (1885, Marx hil ondoren); Kapitala, III. liburukia (1894, Marx hil ondoren)

Iturria: Norberak egina

Oro har, ekonomista klasikoak Europako kolonialismoaren alde zeuden, kanpoko merkataritzaren bidez lehengaiak eta elikagaiak kostu baxuaren truke eskuratzen zituztelako, inbertsio errentagarriak egiten zituztelako, eta, aldi berean, emigrazioaren bidez, sobran zeuden biztanleak kanpora ateratzen zirelako.

Karl Marx, ekonomia kapitalistaren *mugimenduko legeak* agerian jartzeko egin zuen ahaleginarekin, garapenaren teoria garrantzitsu bati egindako lehen ekarpenetat har dezakegu. Auzi kolonialari dagokionez, iritzia aldatu zuen. Hasieran –*Manifestu Komunista* eta *Kapitala* lanetan–, oro har iritzi ona zuen kolonialismoaz, beharrezkotzat hartzen baitzuen, hala Europar kapitalismoa azaltzeko eta garatzeko, nola atzeratutako eremuetan gizarte aurrekapitalistetan geratzeko zeuden joerak gainditzeko.

Bigarren aldian (1875-1883), berriz, Marxek nabarmen aldatu zuen kolonialismoaz egindako azterketa, eta, orobat, aurrekapitalismoko forma batzuen balorazioa, oztopotzat hartu baitzuen atzeratutako eremuen industrializazioari begira; bestalde, independentzia lortzeko borroken alde jarri zen, eta koloniek beren produktu manufakturatuei zergak ezartzearen alde ere bai.

3. Garapena, hazkunde ekonomikoa eta modernizazioa

XX. mendearen erdialdean, gerren arteko krisialdia gainditu ondoren, **ekonomia neoklasikoak** alde batera utzitako **epe ertaineko eta luzeko gaiekiko kezka berreskuratu ondoren**, **Garapenaren Ekonomia** azaldu zen, Ekonomiaren barruko azpidiziplina gisa. Hazkunde ekonomiko etengabea lortzeko ikusten ziren

oztopoak aztertzea zuen helburu nagusizat, batez ere II. Mundu Gerraren ondoren independentzia lortu zuten herrialdeetan. Teoria ekonomiko konbentzionalak azpigaratuztat deitutako herrialdeen arazoei aurre egiteko zuen ezintasun analitikoak ikusita, aitzindarien iritziz, bestelako tresna bat behar zen, garatutako ekonomiek haientzat sortutakoa ez zena.

Hori agertu zenean, aldaketa sakonak gertatzen ari ziren nazioartean: **Depresio Handia** (1929-1939), Hego Asia eta Ekialde Hurbila **deskolonizatze**ko prozesuak, Estatu Batuak munduko potentzia hegemoniko berria izateko jarrera, plangintza indikatiboaren arrakasta herrialde garatuetan lehenengo berrogei urteetan; Europa berreraikitzeko AEBetako planak bide onetik joatea (**Marshall Plana**), Nazio Batuen kezka garapen-erloko arazoekiko, **Nazio Batuen Erakundearen** sorrera, eta **Bretton Woodseko Akordioak**.

Aldaketa horiek eragina izan zuten pentsamendu politikoan eta sozialean, eta, ondorioz, hauek gauzatu ziren: a) **Lau Askatasunen Diskurtsoa**, AEBetako presidentea zen Rooseveltek eskubide unibertsaltzat planteatu zituenak 1941. urtearen hasieran, behartasun-egoeran ez izateko eskubidea barne hartuta; b) **Atlantikoko Gutuna**, Churchillek eta Rooseveltek urte horretako abuztuan sinatutakoa, eta c) **Truman Presidentearen Adierazpeneko Laugarren Puntua**, 1949koa, garapenerako laguntzako AEBetako lehen programa izango zena.

Garapenaren ikuspegi horretatik, pertsonen ongizatea bizi diren herrialdeetako aberastasun globalaren mende dago zuzenean, herrialdeek aurrera egiten badute, biztanleek ere aurrera egingo dutela uste delako. Horrek aukera emango liguke garapen-erloko aurrerapenak estatuko batezbestekoetatik eta agregatuetatik abiatuta ebaluatzeke, banaketari lotutako auziak bigarren planoan utzita. **Estatu-nazioa** zen arretaren ardatza, prozesu ekonomikoak eta sozialak gorpuzteko arlo nagusia zelako eta, era berean, **garapenaren subjektua** bera zelako. Giza garapena eta pertsonen ongizatea garapen nazionalaren azpi-produktu gisa hartu ziren orduan.

Garapenaren **helburua per capita errenta etengabe handitzea** zen; eta horretarako zeuden baliabideak, oro har, kapital-metaketa sustatzea eta, zehatzago, industrializazioa, barne merkatuaren babesa, eta estatuaren esku-hartzea ziren.

2. Taula. Garapena, hazkunde ekonomiko gisa. Egile nagusiak eta haien obrak	
Egilea	Argitalpena
Joseph Alois Schumpeter (1883-1950)	<i>The Theory of Economic Development: An inquiry into profits, capital, credit, interest and the business cycle</i> (1911)
Gunnar Myrdal (1898-1987)	<i>The Political Element in the Development of Economic Theory</i> (1953) <i>An international economy. Problems and prospects</i> (1956)
Ragnar Nurkse (1907-1959)	<i>Kapitala sortzeko arazoak, behar besteko garapenik ez duten herrialdeetan</i> (1953); <i>Patterns of Trade and Development</i> (1959)
Nicolás Kaldor (1908-1986)	<i>A Model of Economic Growth</i> (1957)
Albert O. Hirschman (1915-2102)	<i>The Strategy of Economic Development</i> (1958)
Walt Whitman Rostow (1916-2003)	<i>The Stages of Economic Growth: A non-communist manifesto</i> (1960)
Arthur Lewis (1915-1991)	<i>The Theory of the Economic Growth</i> (1955)
Robert Solow	<i>Growth Theory: An Exposition</i> (1969)

Iturria: Norberak egina

Ikuspegi horretatik, garapena neurtzen eta kontatzen hasi zen, hazkunde ekonomikoaren eta bera eragiten zuten aldagaien bidez, lehenago hasitako kontabilitate nazionalako azterketei jarraipena emanda. Era horretan, herrialdeen bi kategoria desberdin sortu ziren: *garatuak* eta *azpigaratuak*, hau da, garatuta zeudenak (berez, garapenaren ideia irudikatzen zuen eredu) eta garatuta zeudenen azpitik zeuden beste batzuk, denok ibili beharreko irudimenezko eskala batean. Azpigaratuak, beste ezer baino lehen, ekoizteko gaitasun urriaren eta hazkunde ekonomiko ahularen adierazpena ziren.

Hazkunde gisa ulertutako garapena neurtzeko erabilgaitako adierazle nagusia [Barne-Produktu Gordina](#) da, denboraldi jakin batean (normalean, urtebetean) herrialde edo eskualde batean ekoiztutako azken ondasunen eta zerbitzuen diruzko balioa adierazten baitu.

Hala ere, hazkundera neurtzeko adierazle gisa ere muga handiak ditu, **erregistratu gabeko jarduerak** –adibidez, [murgildutako ekonomia](#)– eta **merkatutik kanpo egindako jarduerak** –(monetizatu gabeak), esate baterako, borondatezko lana eta, batez ere, etxeko lana– aintzat hartzen ez direlako. Beste muga batzuek baliabideak agortzen direla kontuan ez izatearekin dute lotura, edo jarduera ekonomikoak sortutako kanpoko kostu sozialak aintzat ez hartzearekin –[kanpo eraginak](#)–. Azkenik, nabarmendu behar da harengan ez duela eraginik zein ondasun edo zerbitzu mota egiten den.

Bestetik, per capita BPGk edo [Per-capita Errentak](#) biztanle bakoitzari dagokiona neurtzen du, hau da, aberastasun pertsonalaren gehikuntza. Hala ere, muga garrantzitsua du, ez baititu kontuan hartzen errenta aldetik dauden desberdintasunak.

Zenbait herrialdetako barne produktu gordinak erkatzeko, informazioa homogeneizatu behar da, herrialde bakoitzak bertako monetan neurtzen baitu bere produktua. Ildo horretan, herrialdeko BPG moneta komunal batean adierazi behar da, truke-tasen bidez. [Erosahalmenaren Parekotasuna](#) neurririk egokienetako bat da ondasunen eta zerbitzuen ekoizpena erkatzeko, eta abantaila du *per capita* barne produktu gordin nominalaren gainetik, prezioen bariazioak kontuan hartzen dituelako.

4. Garapena eta egiturazko aldaketa

Berrogei eta berrogeita hamarrek hamarkadetan, garapenari buruzko lehen doktrina-atal garrantzitsua sortu zen Latinoamerikan: “[CEPALen pentsamendua](#)” (Latinoamerikarako Nazio Batuen Batzorde Ekonomikoarena). [Raúl Prébischen](#) (1901-1986) babesaz eta bultzadaz, CEPALen hausnarketa Latinoamerikako [desarrollismoaren](#) oinarria, [Menpekotasunaren Teoria](#) sortzeko funtsa, eta, aldi berean, laurogeiko hamarkadako Neoestrukturalismoaren euskarria izan zen.

1949. urtean, Raúl Prébischek “[El desarrollo económico de la América Latina y algunos de sus principales problemas](#)” izeneko txostena argitaratu zuen, “CEPALen manifestutzat” hartzen dena. Bertan ezarri ziren erdigune-periferia azterketaren oinarriak, funtsezko hiru ideiak hauek euskarritzat hartuta: a) Erdiguneko herrialdeen eta ekonomia periferikoen ekoizpen-egiturak guztiz *desberdinak* dira, erdigunean homogeneotasuna eta dibertsifikazioa baitira nagusi, eta periferiaren egitura, berriz, *heterogeneoa* eta *espezializatu*a baita; b) Egitura horiek *elkarren arteko harremana* dute lanaren nazioarteko banaketaren bidez; garapena eta azpigarapena mundu-mailako sistema ekonomiko bakar batean elkarren artean lotuta dauden prozesuak dira, eta erdiguneko eta periferiak zeregin desberdinak eta osagarriak betetzen dituzte nazioarteko eskalako lanaren banaketan –manufaktura, oinarriko produktuen aurrean–; c) Erdiguneko eta periferiaren arteko harreman horiek *asimetrikoak* dira, euren ekoizpen-egituren arteko desparekotasuna erreproduzitzen baitute, periferian azpigarapena indartuz eta erdiguneko alde handituz. Merkataritza aske horrek ez ditu nazioarteko desparekotasunak murrizten edo zuzentzen; nabarmendu egiten ditu.

Eskualdean hazkunde ekonomikoa izateko oztopo diren arrazoen diagnostiko horrekin bat etorruta, [Inportazioak Ordezkatuz Industrializatzea](#) (ISI) estrategia hartu zen, funtsean barne merkatura zuzendutako ekoizpenean eta haren babesean oinarrituta, eta estatuaren parte-hartze handiarekin.

1957. urtean, *The Political Economy of Growth* eman zuen argitara Paul A. Baran ekonomialari estatubatuarra, eta, horrenbestez, *Mendekotasunaren teoria* izeneko korrante teorikoa jarri zuen abian. Funtsean, hiru ideia nagusi hauek bultzatzen zituen: a) azpigarapena ez da garapenaren aurreko fase bat edo aurreko etapa bat, kolonialismoaren eta inperialismoaren emaitza historikoa baizik; b) mendekotasuna, azpigaratutako herrialde kapitalisten bereizgarrietako bat, nazioarteko harreman ekonomikoen izaera kaltegarriaren ondorio dena, galga indartsua da herri horien garapenari begira; c) kapitalismoa, historikoki sistema progresiboa izan beharrean, oztopo da Hirugarren Munduaren garapena lortzeko.

3. Taula. Latinoamerikako Estrukturalismoa eta Mendekotasunaren teoria. Egile nagusiak eta haien obrak	
Egilea	Argitalpena
Raúl Prébisch, (1901-1986)	<i>El desarrollo económico de América Latina y algunos de sus principales problemas</i> (1949)
Celso Furtado; (1920-2004)	<i>Desarrollo y subdesarrollo</i> (1964), <i>Teoría y política del desarrollo económico</i> (1968)
Paul A. Baran; (1926-2011)	<i>The political economy of growth</i> (1957)
Fernando H. Cardoso	<i>Dependencia y desarrollo en América Latina</i> (1969) (Enzo Falettoekin)
Samir Amin	<i>Garapen desberdina. Kapitalismo periferikoaren egitura sozialei buruzko saiakera</i> (1974)
Oswaldo Sunkel	<i>El subdesarrollo latinoamericano y la Teoría del Desarrollo</i> (Pedro Pazekin, 1970), eta <i>Dependencia externa y teoría económica</i> (1971)
Immanuel Wallerstein	<i>Mundu mailako sistema modernoa. Nekazaritza kapitalista eta mundu-ekonomiaren jatorria, XVI. mendean</i> (1979); <i>Mundu mailako sistema modernoa. Merkantilismoa eta mundu-ekonomia europarraren sendotzea</i> (1984)
Ruy Mauro Marini (1932-1997)	<i>Garapen kapitalistaren dialektika, Brasilen</i> (1966), <i>Azpigarapena eta iraultza</i> (1969), <i>Mendekotasunaren dialektika</i> (1973)
Theotonio dos Santos	<i>Mendekotasunaren izaera berria</i> (1967); <i>Mendekotasuna eta aldaketa soziala</i> (1972)
Andre Gunder Frank (1929-2005)	<i>Capitalismo y subdesarrollo en América Latina</i> (1967); <i>Sociología del desarrollo y subdesarrollo de la sociología: el desarrollo del subdesarrollo</i> (1969)

Iturria: Norberak egina

Ikuspegi horiek, bertsio estrukturalistan edo mendekotasunaren bertsioan, **ez zuten hazkundearen ideia zalantzan jarri**. Egile estrukturalistek eta dependentistek, gehienbat, ikuspegi horren muga batzuk adierazi zituzten, eta herrialde garatuen eta azpigaratuen artean, desberdintasun kuantitatiboek gain, desberdintasun kualitatiboak ere bazeudela nabarmendu zuten, egiturazkoak. Desberdintasun horiek mendekotasuneko harremanak sortzen zituzten, garapen ekonomikoak zaildu, galarazi edo ito ahal zituzten, eta garatzeko prozesua erabat oztopatzeko gauza ere baziren.

Oro har, ez ziren hazkundearerik kezka nagusitik aldendu, baina arreta eman zieten herrialde aberatsen eta azpigaratuen arteko harremanen ondorioz sortutako oztopoei, eta hautabidezko estrategiak eskatu zituzten, "barrurantzko" hazkundera lortzeko edo, besterik gabe, sistema kapitalistarekin hausteko. Korrante kritikoeek elkarrekiko onuraren tesia ezeztatu zuten, eta erdigunearen eta periferiaren arteko harremanaren izaera aldatzeko beharra aipatu zuten –edo sistemarekin hausteko edota deskonektatzeko, bestela–, garapenari bide eman ahal izateko. Horixe izan zen, hain zuzen, haien ekarpenik handiena.

Denek nabarmendu zuten zaila edo ezinezkoa zela herrialde garatuak deitutakoek ibilitako bidetik aurrera egitea; baina ez zuten zalantzan jarri hazkunde ekonomikoa zela –egiturazko zenbait aldaketarekin batera– azpigarapena deitutako horretatik ateratzeko tresna nagusia eta ia bakarra.

Ikuspegi teorikotik, kritikek alderdi hauek izan zituzten jomuga: marxismoarekiko loturak moztea, nahiz eta sarritan Marxen eta haren jarraitzaileen oinordeko zuzentzat hartu beren burua; modernizazioaren teoriarekiko antzekotasun epistemologikoa aipatzea, azken batean ikuspegi ortodoxoak zuen paradigma metodologiko bera hartzen zuelako; azterketa determinista egitea eta, beraz, ikuspegi ahistorikoa eta katastrofista izatea Hirugarren Munduan izandako aldaketei buruz; “zirkulazionismoa” edo, bestela esanda, kapitalismoari buruzko ikuskera zirkularra edo erabat merkataritzakoa; mundu-mailako metaketari buruzko teoria sendorik ez izatea; eta azpigarapen eta garapen kontzeptuen zehaztugabetasun handia.

Mendekotasunaren ikuspegiak zituen desegokitasunak hirurogeita hamarrekota hamarkadaren hasieran jarri ziren agerian, eta, Asiako hego-ekialdeko herrialde industrialak sortu eta sendotu zirenean, haien esperientziak, salbuespenekoa izan arren, argi frogatu zuen Hirugarren Mundu kapitalistan hazkunde industrial etengabea izan zitekeela.

Adierazle asko daude egiturazko aldaketa neurtzeko, baina ekoizpenaren banaketa sektorialarekin eta erabilerarekin harremana dutenak, eta esportazioen eraketarekin eta biztanleriaren egiturarekin zerikusia dutenak har daitezke aintzat. Azpigaratutako edo mendeko ekonomietan, ekoizpenak eta enpleguak gehiegizko ordezkari dute lehen sektorean eta sektore informalean; lehen sektorearen pisu erlatiboa aski garrantzitsua da esportazioaren sektorean, eta biztanleriaren piramidearen oinarria zabala da oraindik.

5. Garapena, pobrezia eta desparekotasuna

Garapenaren bigarren hamarkada bukatu ondoren, Nazio Batuen babesean, hainbat jarrera kritiko azaltzen hasi ziren, azpigarapena garatzeko –hau da, pertsonen ongizatea handitzeko– hazkunde ekonomikoak zuen gaitasuna argi eta garbi zalantzan jartzen zutenak.

1960ko hamarkadaren amaieraren eta 1970eko hamarkadaren hasieraren artean egindako zenbait ikerketak agerian jarri zuten, bi hamarkadatan baino gehiagotan munduko eskualde gehienetan hazkunde-tasa altuak izan arren, sarritan horrek **ez zuen balio izan pobrezia arintzeko edo parekotasun gehiago egon zedin lortzeko**. Alderdi horiek erreferente garrantzitsutzat hasi ziren hartzen, garapenaren arrakastak edo porrotak ebaluatzerakoan. Era berean, azterketen arabera, herrialde askotan barneko desparekotasunek gora egin zuten, eta nazioartean ere bai. Ildo horretan, hazkunde ekonomikoak ez zuen Iparraren eta Hegoaren arteko arrakala itxi, eta, gainera, areago zabaldu zuen, hala maila absolutuetan nola erlatiboetan.

Aldi berean, Munduko Bankuaren eta haren presidente **Robert S. McNamararen** ekimenez, 1968an, batzorde bat eratu zen garapenerako lankidetzan emandako 20 urteen emaitzak aztertzeko. Txostenak –**Pearson Txostena** izenekoak– agerian jarri zituen ordura arte abiarazitako garapenerako lankidetzako politikek zituzten mugak.

Garai berean, beste fase bat hasi zen garapenari buruzko pentsamenduaren historian, hazkundeari emandako garrantziaren ondoren, berez garapenari zegozkion helburuekiko kezka piztu baitzen, hau da, baliabideengatik kezka izan beharrean –per capita errenta zabaltzea–, helburuekiko kezka –biztanleen bizikaltatea hobetzea–. 1969. urtean, New Yorken izan zen Garapenerako Nazioarteko Munduko Biltzarren 11. edizioan, garapenaren alde sozialekiko kezka hartzeko fasearen hasiera formala izan zen. Gero, oinarritzko beharizanen estrategia sortuko zen hortik.

Garapenari buruzko azterketak gai sozialetara birbideratzeko arrazoiaren artean, besteak beste, honako hauek ditugu: Mendebaldean “gizarte oparoak” sorrarazten duen arbuio gero eta handiagoa, 1968ko maiatzeko mugimenduak Frantzia agerian jarri zuenez; hazkunde ekonomikoari egindako kritikak, garatutako

herrialdeetan kostu sozialak sortu baitzituen Hirugarren Munduan langabezia, desparekotasuna eta pobrezia gutxitu gabe; Inportazioak Ordezkatuz Industrializatzea estrategiaren itxurazko porrot ekonomikoa eta soziala; Hirugarren Munduko pobreziaz eta desparekotasunez dagoen informazio estatistiko gero eta handiagoa; eta 1973-1974 urteetan Sahelen (bereziki, Etiopian) eta Bangladeshen izandako goseteak, hildako ugariarekin eta oinaze handiarekin.

Hala, bada, langabeziarekiko eta azpienpleguarekiko kezka izatetik, langile pobreen egoera –batez ere sektore informalena eta emakumeena– hobetzeko baliabideen azterketara igaro zen. Hortaz, banaketa bilakatu zen arretagunea, nabarmena baitzen askoz ere desparekotasun handiagoa zegoela Hirugarren Munduko herrialdeetan, nazio aberatsetan baino. Hazkunde ekonomikoa egon arren, horrek ez zuen ezinbestez desparekotasuna gutxitzen; aitzitik, handitu egiten zuen. Hazkundera ezinbesteko baldintza zen pobrezia absolutua ezeztatzeko, baina, normalean, errentaren banaketan parekotasun gutxiago izateko joera indartzen zuen, batez ere, hasieran berdintasun eza muturrekoa bazen. Errenta eta aberastasuna langile pobreen artean birbanatzea bultzatu zen, arrazoi moralak eta ekonomikoak aipatuta, neurri horren bidez eraginkortasuna hobetu eta hazkundera indartu ahal izango zelakoan.

4. Taula. Pobrezia eta desparekotasuna. Egile nagusiak eta haien obrak	
Egilea	Argitalpena
Hollis B. Chenery; 1918-1994 Dudley Seers; 1920-1983	<i>Redistribution with growth: an approach to policy (1974)</i>
Richard Jolly et al.	<i>Adjustment with a human face: protecting the vulnerable and promoting growth (1987)</i>
Dudley Seers; 1920-1983	The Meaning of Development (1969)
Nazioarteko Garapen Batzordea	Pearson Txostena: garapen globalerako estrategia berria (1970)
Paul Streeten	<i>The frontiers of development studies (1972); First things first: meeting basic human needs in the developing countries (1981)</i>

Iturria: Norberak egina

Hazkunderaren bidez birbanatzeko strategiaren oztopo teorikoak eta praktikoak eta proposamenik erradikalenen izaera politikoki gatazkatsua ikusita, banaketaren kezketatik atera, eta pobrezia bera azpimarratu zen berriz.

Denboraren poderioz, langabeziaren aurkako borroka eginez, banatzeko modua hobetuz eta pobrezia errotik desagerraraziz aldi berean, osoko ikuspegia sortu zen oinarrizko edo funtsezko beharriaz buruz. Orduan, [Lanaren Nazioarteko Erakundeak](#) osatutako definizioaren arabera, oinarrizko beharriaz buruzko gizariek beren biztanlerik pobreentzat finkatu behar zuten gutxieneko bizitza-maila bermatu behar zuten; lau kategoriatan sailkatzen ziren: a) bizitza-maila duina izateko behar ziren elikagaiak, etxebizitza eta jantziak izatea; b) hezkuntza, osasun, garraio, edateko ur eta estolderiako zerbitzu publikoak izatea; c) behar bezala ordaindutako lana izateko aukera izatea; d) jendearen bizimoduan eragina duten erabakietan parte hartzeko eta ingurune osasuntsu, gizatiar eta egokian bizitzeko eskubidea izatea.

1970eko hamarkadaren amaieran oinarrizko beharriaz buruzko estrategia bultzatu zutenek osatu zuten, gero, PNUDe giza garapenari buruzko txostenen gune intelektuala, eta, gainera, garapenari lotutako era askotako alderdietara bideratu ahal izan zuten ekonomialarien arreta: alde soziala, oro har, eta parte-hartzea, bereizkeria eta natura-baliabideak agortzea.

Nabaria zen langabezia, desparekotasuna eta pobrezia azpimarratzeak eta oinarrizko beharriaz buruzko ikuspegi orokorra izateak bide eman ziela garapen-arloko adituei tradizioz bazter utzita zeuden gai batzuei ekiteko. Hala ere, aldaketa sozialeko aldi hartan, hainbat oztopo zeuden; esate baterako, proposatutako helbururik

laudagarrienak batzuetan ez zirela oso errealistak, ezta operatiboak ere. Ondorioz, herrialde aberatsek arreta desbideratzea lortu zuten, eta helburu nagusi honetara eraman zuten: nazioarteko ordena ekonomiko berri bat sortzera, alegia.

Hiru adierazle-mota erabiltzen dira [pobrezia eta desparekotasuna](#) neurtzeko: *sarrerako pobrezia*ren adierazleak, *giza pobrezia*ren adierazleak eta *desparekotasunaren adierazleak*.

Sarrerako pobrezia adierazleak ezartzen dituzten mugak gaindituz gero, pobrezia-maila desberdinak hartzen dira aintzat. [Pobrezia absolutua](#) kontzeptuak definitzen duen egoeran pertsonak muga jakin batetik behera daude, kokatuta dauden tokia gorabehera. Aldiz, [pobrezia erlatiboa](#) kontzeptuak definitzen dituen pertsonen errenta muga jakin batetik behera dago, bizi diren herrialdeko edo eskualdeko batezbesteko kopuruarekin erkatuta.

Giza pobrezia adierazleei dagokienez, [Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea](#) da nagusia, [Garapenerako Nazio Batuen Programak](#) prestatutakoa (PNUD). IPH, IPH1, IPH2 ordezkatu, eta pobrezia intentsitatea neurtzen du banaka, oinarritzko hiru alderdi hauetan, 10 aldagai erabiliz: hezkuntzan, osasunean eta bizitzamailan.

Azkenik, errenta aldeko desparekotasuna neurtzeko, hauek dira adierazle nagusiak: [Gini Koefizientea](#), biztanleria-segmentu bakoitzak duen errenta-ehunekoa neurtzeko, eta 80/20 ratioa, sarrerarik altuenak dituzten pertsonen %20aren guztizko sarreraren (80 pertzentila edo goi kintila errentaren banaketan) eta sarrerarik baxuenak dituzten biztanleen %20aren guztizko sarreraren (20 pertzentila edo behe kintila) arteko koefizientea neurtzen dituen. Orainsuko aldaera bat [Palma Adierazlea](#) izenekoa da, aberatsen den %40ak eramaten duen sarrerako ehunekoaren eta pobreena den %40ak eramaten duenaren arteko harremana neurtzen duena. Uste da desberdintasuna hor agertzen dela argien.

Desparekotasun-mota desberdinak daude: errenta-desparekotasuna herrialde bakoitzaren barruan; nazioarteko desparekotasuna, herrialde bakoitzaren batezbesteko errentatzat hartua; eta munduko desparekotasuna, munduko biztanleria osoaren errenta hartzen duena, herrialde bakar bat balitz bezala. Desparekotasun-motaren arabera, bilakaera desberdina izan da.

6. Iraunkortasuna eta garapena

Pobrezia eta desparekotasunari lotutako arazoek bere horretan irauteaz gain, irregulartasunen beste esparru bat azaldu zen garapenaren prozesuan, eta XX. mendeko 1960ko hamarkadaren amaieran hasi zen indarra hartzen: ingurumenaren mailaz mailako hondamena eta natura-baliabideak agortzea.

Azaldutako gaiak agerian jartzen zituzten ereduak epe laburrean, ertainean eta luzean ekarriko zituen ondorio kaltegarriak. Epe laburrean, arazo hauek agertzen ziren: gaixotasun eta arrisku berriak giza osasunerako, airearen kutsaduraren, uraren kalitate txarraren, pilaketan eta zarataren ondorioz; eta, bestalde, gero eta kezka handiagoa, espazio naturalen suntsipenagatik. Horren ondorioz, protesta-mugimendu indartsuak sortu ziren herrialde batzuetan. Epe ertainean eta luzean, sumatu ziren arazoak are larriagoak ziren: baliabideak pixkanaka agortzea, biodibertsitatearen galera, tokiko eta mundu mailako desoreka ekologikoak, eta aldaketa larriak kliman.

Kezka hori hiru modutan ematen da aditzera aldi berean: 1) *segurtasun globala*, ingurumena suntsitzearen ondorioz eta, beraz, giza espeziearen biziraupen eta sistema ekonomikoaren bideragarritasunaren beraren ondorioz; 2) *hazkundeak dituen mugak*, baliabide mugatuetan oinarritutako hazkunde material mugagabea ezinezkoa delako; eta 3) *pobrezia eta aberastasunaren artean dagoen interdependentzia*, ingurumenak eta giza garapenak harreman estua eta banaezina dutelako.

Zientzialari batzuek lehendik ohartarazi zuten arazo horiek zeudela, eta argi eta garbi eztabaidatu zuten arazo horien arrazoi nagusiez, baina, zalantzarik gabe, [Hazkundearen Mugak](#) (1972) argitalpenak inpaktu handia izan zuen, eta jendea gehiago hasi zen auzi horretaz konturatzen. Gero, 1987an, Ingurumen eta Garapenerako Batzordeak [Denon Etorkizuna Txostena –Brundtland Txostena–](#) argitaratu zuenean, garapenaren eta ingurumenaren arteko harremani buruzko eztabaida hasi zen formalki.

Brundtland Txostenak [garapen iraunkorra](#) kontzeptua formulatu zuen: etorkizuneko belaunaldiak beren beharrianak betetzeko gaitasunari kalterik egin gabe, egungo belaunaldiaren beharrianak betetzen dituen garapena. Formulazio horren edukia oso normatiboa da, garapenak *nola izan behar duen* adierazten baitu, baina argibide gutxi ematen du mugarik gabeko hazkunde ekonomikoaren eta baliabide naturalen kontserbazioaren arteko oinarritzko gatazka konpontzeko moduari buruz.

Garapen iraunkorra kontzeptuak eztabaida gogorak piztu ditu, eta bertsiorik hedatuena, *Brundtland txostenean* jasotakoak, zenbait anbiguotasun ditu, batez ere hazkundearen gaia lantzerakoan. Horren ondorioz, mota guztietako erakundeak maiz hasi dira modu orokorrean erabiltzen –gehienetan, edukiz hustuta–. Beharbada, hori da kontzeptuak duen hutsune nagusietako bat, eta, aldi berean, bide eman du kontzeptua gero eta modu malguagoan eta gehiegikeriaz erabil dadin, azkenean, batere birtualtaterik ez duen zerbait bilakatu den arte, edo, okerrago dena, konjuru magiko bihurtu arte, gobernariak, teknokratek eta industrialariak ingurumenaren alde ari direlako itxura egin dezaten, konpromisorik hartu gabe, betiko produktibismo kapitalistarekin jarraitu ahal izateko.

Gaur egun, akordio zabala dago kontzeptuak duen erabilgarritasun urriaz –Brundtland Txostenak proposatutako edukiaz ere bai–, prozesu ekonomikoaren eta sozialen iraunkortasuna zorrotz interpretatzeko bide emango duten irizpideak eta adierazleak zehatzago definitzen ez diren bitartean, behintzat.

5. Taula. Iraunkortasunaren eta garapenaren arloko egile nagusiak eta haien lanak < https://es.wikipedia.org/wiki/Econom%C3%ADa_ecol%C3%B3gica >	
Egilea	Argitalpena
Nicholas Georgescu-Roegen ; (1906-1994)	The Entropy Law and the Economic Problem (1971)
Barry Commoner ; 1917-2012	<i>The Closing Circle: Nature, Man, and Technology</i> (1971).
Herman E. Daly	<i>Steady-State Economics</i> (1977); <i>Ecological Economics and the Ecology of Economics</i> (1999)
Donella Meadows (1941-2001) et al	Hazkundearen mugak (1972); Hazkundearen mugak baino harago (1992); Hazkundearen mugak: 30 urte geroago (2004)
Joan Martínez Alier	<i>L'Écologisme i l'economia</i> (1984); <i>Ecological economics: energy, environment and society</i> (1987); <i>El ecologismo de los pobres</i> (2005)
José Manuel Naredo	<i>La economía en evolución. Historia y perspectivas de las categorías básicas del pensamiento económico</i> (1987); <i>Hacia una ciencia de los recursos naturales</i> (1993)
Manfred Max-Neef ,	<i>Giza eskalako garapena: kontzeptuak, aplikazioak eta hausnarketak</i> (1986)
Nazio Batuen Ingurumen Programa	Denon Etorkizuna (Brundtland Txostena) (1987)

Iturria: Norberak egina

Gizakiaren oraingo eta etorkizuneko beharrianak asetzeko prozesuarekin bateragarria den eta konbentziosko ekonomiaren aurreko benetako hautabidea izan daitekeen iraunkortasunaren ideia hurbiltzeak hartu du eta

hartzen du ekonomia ekologikoaren esparruan aritzen diren gehienen arreta. Ildo horretan, *ingurumeneko gaitasunei* eusten zaien heinean definitu behar dela adierazi da, hondamendia saihesteko eta etorkizuneko belaunaldiari ingurumeneko kontsumoaz gozatzeko aukera emango dien mailan.

Bestalde, batzuetan, iraunkortasuna beste kontzeptu batekin jartzen da harremanetan: *karga-gaitasunarekin*, hau da, baliabideen oinarria hondatu gabe, lurralde batean mugarik gabe hornitu ahal den espezie bateko gehieneko biztanleriarekin. Ikuspegi horretatik, elikatzeko gaitasunaren muga iristen deneko puntuak zehaztuko luke iraunkortasuna.

Baliabide naturalen eta giza jatorriko baliabideen stock osoak aldaketarik gabe irauten duenean iraunkortasun ahula dugu, horrek esan nahi baitu, berriztagarriak ez diren baliabideak gutxituz gero, giza jatorriko beste baliabide batzuek ordezkatu beharko dituztela. Iraunkortasun indartsua harago doa, hari jarraiki kapital naturala baita aldaketarik gabe iraun behar duena. Natura-baliabide batzuk berriztagarriak ez direnez, horiek gutxitzen direnean, ezinbestez handitu behar dira berriztagarriak diren baliabideak.

Bide guztiek ezinbestez hartzen dute aintzat hazkundera, gaia behin eta berriz agertzen baita Garapenaren Ekonomian, eta garapen iraunkorra interpretatu nahi duten joerek iskin egin nahi baitiote, kontzeptuaren muin nagusira ez barneratzeko. Hazkunderaren kontua ezinbestekoa da iraunkortasunaren eztabaidari zorrotzasunez ekiteko, eta, ondorioz, banaketari lotutako auziak ere landu behar dira nahitaez. Hala ere, nazioarteko gobernu eta erakunde askok egindako txostenek eta gomendioek garrantzi gutxi eman diote azken gai horri, eta hori oso esanguratsua da.

Zenbait adierazle daude iraunkortasunaren aldagaia garapenean neurtzeko:

Ongizate Ekonomiko Iraunkorraren Indizea Dalyk eta Coobek (1989) diseinatu, eta Coobek (1994) berrikusi zuen. Aldagai ekonomikoak, banatzaileak, sozialak eta ingurumenekoak bateratzen ditu ponderatuki, adibidez, kontsumo doitu, Gini koefizientea, gastu konpentsatzaileak edo defentsakoak –ezarritako ingurumen-kostuak konpentsatzeko direnak–, osasun- eta hezkuntza-maila, eta gizarte-ongizateko zereginek adierazten dituzten bestelako ondasunetarako eta zerbitzuetarako sarbidea izatea. <<http://www.economia.unam.mx/cedrus/descargas/ibesc.pdf>>.

Ingurumena Iraunarazteko Indizea Global Leaders for Tomorrow Environmental Task Force-ren ekimena da (World Economic Forum). Guztira, 21 adierazle eta 5 osagai hartzen ditu kontuan: a) herrialde bakoitzaren ingurumen-sistemen egoera; b) ingurumen-sistemetan dauden arazo nagusiak gutxitzeko zereginean izandako arrakasta; c) izan litezkeen ingurumen-kalteengatik herritarrak babestean izandako aurrerapenak; d) herrialde bakoitzeko gizartearen eta erakundearen gaitasuna, ingurumenari lotutako ekintzak garatzeko; e) herrialde bakoitzaren administrazio-maila. <<http://www.cepal.org/deype/publicaciones/xml/4/34394/LCL2771e.pdf>>.

Aztarna Ekologikoa ingurumeneko inpaktuaren adierazleak harremanetan jartzen ditu planetako baliabideen kontsumoa eta Lurra bere baliabideak birsortzeko duen gaitasun ekologikoa. Adierazle honek irudikatzen du baliabideak sortzeko eta biztanleria bakoitzak, bere bizimoduari jarraiki, mugarik gabe ekoiztiko hondakinak asimilatzeke behar den eta ekologikoki emankorra den lur- edo ur-arloa (lur landuak, larreak, basoak edo ur-ekosistemak), eta, modu idealean, airearen bolumena ere bai. Aztarna ekologikoa kalkulatzeko duen funtsezko helburua da bizimodu jakin batek planetan duen inpaktua ebaluatzea, eta planetak duen biogaitasunarekin erkatzea; hortaz, funtsezko adierazlea da **iraunkortasunari begira**.

Azkenik, metodologiaberriak sortuz, ekonomien metabolismo soziala neurtu nahian. **Materialen Fluxuaren Analsiak** sistematik igarotzen diren materialen kopurua aztertzen du, materializazio-desmaterializazio maila neurtzeko. Zerbitzu Unitateko Input Materiala (**Material Input per Service Unit**) adierazleak baliabideak erabiltzeko eraginkortasuna neurtzen du, eta harremanetan jartzen ditu produktu baten natura-baliabideen kontsumoa –ekoizpen-prozesu eta bizitza osoan– eta produktu horrek eskaintzen dituen zerbitzu guztiak. **Itzulera Energetikoaren Tasak** energia-iturri batek ekoizti ahal duen energia-kopuru osoaren eta baliabide energetiko hori ustiatzeko erabili edo jarri behar den energia-kopuruaren arteko harremana neurtzen du.

7. Garapena eta gaitasunak: Giza Garapena

Giza beharrezan eta behar horiek hazkunde ekonomikoarekin duten harremanaren inguruko eztabaida laurogeiko hamarkadaren hasieran abiatu zen, eta mahai gainean jarri zuen esparru kontzeptual bat finkatu behar zela giza harremanak identifikatzeko. Amartya Senek konbentziozko utilitarismoa kritikatu zuenean, bide eman zuen ongizatearen eta giza garapenaren nozioa berriz formulatzeko.

Laurogeita hamarreko hamarkadan agertutako [giza garapenaren](#) nozio berriaren oinarria da gizakiak helburuak direla berez, ez direla gehiago edo gutxiago definitutako beste helburu batzuk lortzeko baliabide hutsak. Oinarri teoriko hori Senek ongizatearen kontzeptuaz emandako birdefinizioan du sorburua, ikuspegi alternatibo bat azaldu baitzuen norbanakoen lehentasunei eta horiek hautu sozialarekin duten harremanari buruz.

Erabilgarritasuna eta ongizatea bereizten ditu, eta erabilgarritasuna ez dela ongizatearen forma egokia adierazten du. Ikuspegi horretatik, giza gaitasunak zabaltzea garapenaren funtsezko erreferentzia bilakatzen da, eta hori, aldi berean, askatasunen ikuspegiari lotuta dago, irudikatzen duena ez baita haren onarpen formala, baizik eta erabiltzeko gaitasuna bera.

Ikuspegi horretatik abiatuta, PNUDek ahaleginak egin ditu giza aukerak definitzen aurrera egiteko, pertsonen gaitasunak eta askatasunak zabaltzeko prozesuak zehatzago identifikatzeko: bizitza luzea eta osasuntsua izatea, ezagutzak ikastea, eta bizitza duina izateko behar diren baliabideak eskuratzea. Hala ere, beste gai batzuek duten garrantzia onartzen da, esate baterako, askatasun politikoak, ekonomikoak eta sozialak, norberarekiko errespetuak eta giza eskubideen babesaren bermeak.

Ongizatearen nozioak izan duen bilakaera horren ondorioek eragina izan dute giza aurrerapenaren ezaugarriak zehaztean, eta garapenaren ekonomian: a) garapenaren helburuak eta baliabideak berrikusteko beharra, eta auzi horrek eragin zuzena du hazkundearekin eta ongizateari egiten dion ekarpenarekin, gaitasunen gehikuntza gisa ulertuta; b) giza ongizatea garapen "nazionalaren" eranskin gisako ondorio hutsa dela ezin onartzea; c) ongizatea ebaluatzeko konbentzioz ongizatea ebaluatzeko erabili izan diren adierazleak ez direla oso egokiak estrategiak planteatzeko edo aurrerapenak eta atzerapenak aztertzeko; d) garapena edo azpigarapena kategoriak sarreraren arabera finkatzeak duen baliagarritasun urria; e) ongizatearen berrirakurketa egiteko beharra, helburutzat hartu ordez, prozesu gisa ikusita.

Denbora luzez PNUDe Giza Garapenari buruzko Txostenen koordinatzailea izan zen [Mahbubul Haq](#)-en ustez, giza garapenaren nozioak lau printzipio hauek ditu oinarrian: a) *Zuzentasuna*: Giza gaitasunak zabaltzeko prozesuak ondo bermatu behar ditu pertsona guztien benetako aukerak, arraza, sexua edo jatorriatik bereizkeriarik egin gabe; b) *Iraunkortasuna*: Giza garapenaren paradigmatik garapen-eredu bat ordezkatzeko du pertsona guztien gaitasunak hedatzeko, baina etorkizuneko belaunaldien garapenari kalterik egin gabe; c) *Emankortasuna*: ekoizpen prozesuan parte har dezaten behar diren baliabide ekonomikoak ematea; gutxieneko baliabideak eskuratzea, finantzatzeko bideak bermatzea eta merkatuetara iristeko bidea ziurtatzea; d) *Ahalduntzea*: Pertsonak beren garapenaren agenteak dira; aldatzeko prozesuak herritarren inplikazioaren eta parte-hartzearen ondorioa izan behar du, ez kanpoko ekintzen emaitza.

Lau printzipio horiek batean laburbildu daitezke, hain zuzen, giza garapenaren ikuspegiak duen benetako irismena adierazten duen printzipio honetan: *Unibertsalismoa*: pertsona guztiek nahi duten moduan bizitzeko aukerak bermatuta izan ditzaten, etorkizuneko belaunaldiek ere bai. Hortaz, pertsonak erabaki behar dute haien etorkizuna, eta, horretarako, kontrol gehiago izan behar dute euren ekintzen gainean. Bestalde, horren ondorioz, aukerak zabaltzeko prozesu horrek zailtasun gehien duten pertsona horien aukerak bermatu behar ditu gehienbat; azken batean, pertsona guztien aukera-berdintasuna behar da, bakoitzak nahi duen bizitza izan dezan, jatorria, arraza, sexua edo erlijiozko sinesmenak alde batera utzita.

6. Taula. Giza garapenari eta gaitasunei buruzko ikuspegietako egile nagusiak eta haien lanak.

Egilea	Izenburua eta argitaratutako urtea
Amartya K. Sen	<i>Collective Choice and Social Welfare</i> (1970); <i>Utilitarianism and Beyond</i> (1982); <i>Resources, Values and Development</i> (1984); <i>Development as capability expansion</i> (1990) <i>Commodities and Capabilities</i> (1985); <i>The Quality of Life</i> . (1993) (M. Nussbaum-ekin); <i>Development as Freedom</i> (1999)
Len Doyal eta Ian Gough	<i>Giza beharizanen teoria</i> (1994)
Martha Nussbaum	<i>Emakumeak eta Giza Garapena</i> (2002); <i>Gaitasunak sortuz. Giza Garapenerako proposamenak</i> (2012)
Manfred Max Neef et al.	<i>Giza eskalako garapena</i> (1993)
Séverine Deneulin	<i>Beyond Individual Freedom and Agency: Structures of Living Together in Sen's Capability Approach to Development</i> . (2008); <i>The capability approach and the politics of a social conception of wellbeing</i> . (2010) J. Alister MCGREGOR-ekin; <i>Advancing human development: values, groups, power and conflict</i> . (2011)

Iturria: Norberak egina

Ikuspegi honen ondoriozko giza garapenaren ikuspuntuak ere ondorio garrantzitsuak ditu genero-ikuspegitik, ongizatearen neurri nagusizat utilitarismoa hartzeak ikuspegi objektiboagoa ematen baitigu pertsonen lorpenei eta gaitasunei buruz, norberaren beharizanen pertzepzioaren eta legezketasunen bidez lortzen denak baino, azken hauek gizarteko arauen eta balioen eraginez blaituta baitaude, eta horiek genero-harremanen eragina baitute gizarte guztietan. Hortaz, garapenaren helburua pertsonen aukerak eta gaitasuna zabaltzea bada, tradizioz emakumeei esleitu zaizkien erreproduktzio-lanek garrantzi gehiago izan behar dute eta gehiago egon behar dute agerian beste ikuspegietan baino, hain zuzen, merkaturako ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenaren –hau da, gizonetzkoen lana metatzen duen arloaren– hazkundera soilik oinarritzen diren ikuspegietan baino.

Hasieran, giza garapenaren proposamenek norbanakoaren gaitasunei baizik ez zieten arreta egiten, ongizatearen ikuspegi indibidualista zen nagusi. Ondorioz, kritikak egin dira hainbat esparrutatik, ongizate indibiduala ezin baita ulertu ongizatearen alde sozialaren prozesu zabalagoaren barruan ez badago.

Ikuspegi horretatik, giza garapena eratzen duen muina gizarte bakoitzak bere etorkizuna definitzeko eta gauzatzeko duen gaitasunean dago, eta horrek funtzionatzeko prozesu kolektiboa behar du, giza garapenari dagozkion helburu komunalak bete nahi dituen prozesua. Definizio horrek bereziki nabarmentzen du giza garapenaren alderdi kolektiboa, eta, beraz, beren helburuak definitzeko eta lortzeko modua zehazteko agente indibidualen eta sozialen artean izaten diren harremanetan jarri behar da arreta.

[Giza Garapenaren Indizea, Garapenerako Nazio Batuen Programak](#) prestatu du. Hiru parametroz osatutako adierazle bat du oinarrian: bizitza luzea eta osasuntsua, hezkuntza eta bizitza-maila duina dira parametroak. 1990ean argitaratu zen lehenengo aldiz.

[Desparekotasunaren Arabera Doitutako Giza Garapenaren Indizea](#) PNUDek argitaratu zuen lehenbiziko aldiz, 2011ko Giza Garapenari buruzko Txostenean. Jendearen batez besteko giza garapenaren maila irudikatzen du gizartean, desparekotasuna kontuan hartuta. Mugak?

[Pobrezia Multidimentsionalaren Indizea](#) PNUDek 2010ean prestatutako adierazle bat da. IPH, IPH1 eta IPH2 ordezkatu, eta maila indibidualean neurtzen ditu pobrezia-motak eta haien intentsitatea, oinarritzko hiru alderditan –hezkuntzan, osasunean eta bizitza-mailan–, 10 aldagai erabiliz.

8. Generoa eta garapena

Hirurogeita hamarrekoko hamarkadaren hasieran, agerian geratu zen gerra ondoren izandako zabalkunde ekonomikoak eta garapenak mugak izan zituztela emakumea garapenean txertatzeko, eta genero-arloko berdintasun gehiago izateko. Oinarri horretatik sortu zen Garapeneko Emakumeen Mugimendua, genero-ikuspegia garapenari buruzko azterketetan sartzeko asmoz sortutako lehenengo adierazpena.

Emakumeari eta generoari buruzko azterketak 80ko hamarkadan hasi ziren egiten. Haiei esker zedarritu ahal izan ziren XX. mendearen erdialdetik aurrera emakumeei zuzendu zaizkien garapen-politikak, hala ikuspegi asistentzialistakoak, nola genero-berdintasuneko politikak, emakumeen eskubideei buruzko ikuspegi desberdinak eta gizonekin erkatuta garapenean izan duten zeregina, edota estatuek politika publikoen bidez dituzten betebeharrak barne hartuta.

Lehen joera, **Emakumeak Garapenean**, Europako eta AEBetako emakumeen zenbait taldek, unibertsitate-zentrok eta garapenerako agentziak bultzatu zuten hirurogeita hamarrekoko hamarkadan. Garapenerako estrategien ustezko "generoko neutraltasunari" egindako kritikan oinarrituta, emakumeei lotutako gaiak aintzat hartu behar zirela adierazi zuten, erreproduktzioaz gain, bestelako gaitasunak ere agerian jartzeko. Emakumeak modu funtzionalean garapeneko estrategian txertatzeko helburua garapenak emakumeak behar dituela dioen premisan oinarritzen da, emakumeen zeregin produktiboa nabarmentzen du, eta merkatutik baztertuta egotearen ondorioztat hartzen du emakumeen mendekotasuna.

Uste horiek aintzat hartuta, emakumeak bakarka hartu dira, irtenbide partzialak bilatu dira, eta haien beharrezkoak esku-hartze espezifikoaren bidez edo "emakume" osagaia duten proiektuekin konpondu nahi izan dira. Ekintza horiek areago indartu dituzte rol generikoak, ez baitute zalantza jarri lanaren banaketa sexuala, ezta gizonezkoen boterea generoko harremanen ezaugarritzat hartu ere, eta gehienbat jarrera indibidualetan ardaztu baitira, gizonezkoek emakumeengan eragiteko dituzten botere ekonomikoak, politikoak eta pertsona artekoak alde batera utzita.

7. Taula. Generoaren eta garapenaren arloko egileak eta haien lanak	
Egilea	Izenburua eta argitaratutako urtea
Ester Boserup, 1910-1999	<i>Woman's role in economic development.</i> (1970)
Martha Nussbaum	<i>Emakumeak eta giza garapena</i> (2012)
Bina Agarwal	<i>Structures of patriarchy: state, community, and household in modernising Asia</i> (1988)
Naila Kabeer	Eraldatutako errealitateak. Generoko hierarkiak, garapenari buruzko pentsamenduan (1999)
Vandana Shiva	<i>Bizitza besarkatzea: emakumea, ekologia eta garapena</i> (1995); <i>Ekofeminismoa. Teoria, kritika eta perspektibak</i> (1997)
Alicia Puleo	<i>Ecofeminismo para otro mundo posible</i> (2011)
Yayo Herrero	<i>Propuestas ecofeministas para un sistema cargado de deudas,</i> (2012)

Iturria: Norberak egina

Bigarren joera, **Generoa Garapenean** izenekoak, 80ko hamarkadan azaldu zen, teoria feministak egindako aurrerapenei loturik, bereziki, genero eta "ahalduntzea" kontzeptuetan izandako aurrerapenari loturik. Aurrerapen horiei esker, botere-harremanek, gatazkak eta genero-harremanek emakumeen mendekotasuna ulertzeko duten garrantzia sartu ahal izan da eztabaidan, eta errealitatearen ikuspegi osoagoa lortu da, garapenaren ikuspegiak kritikatu eta behar den aldaketa egiteko norabidea hartuta.

Ikuspegi horretatik, etxeak negoziazio, elkarlan eta gatazkako guneak dira; emakumeen eta gizonen estatusen dauden desparekotasunek eragin sakona dute bizitza komunitarioan eta ordaindutako eta ordaindu gabeko lanean parte hartzeko moduan, eta desparekotasun horiek barne hartzen dituzte garapenerako programen abiapuntu diren botere eta gizarte arloko harremanak.

Bestetik, **Genero eta Giza Garapenaren Ikuspegiak** giza garapenaren paradigmaren barruan aztertzen ditu generoko harremanak, eta bereziki nabarmentzen ditu politikek emakumeengan eta gizonengan duten eragin desberdina eta, orobat, generoko desparekotasunak giza garapenean duen ondorio kaltegarria. Horrez gain, ikuspegi honek azpimarratzen du, egoera hori kontuan hartu ezean, porrot egingo dela garapeneko estrategia guztiekin. Horrek hausnarketa ugari piztu ditu, giza garapena sustatzeko eraginkorren izan litekeen garapen ekonomikoari buruz eta Hegoaldeko emakumeen interesak egokiago sustatu ditzakeen garapeneko politika-motari buruz.

Laugarren ikuspegiak, **Ekofeminismoak**, feminismoaren eta ekologiaren artean dauden loturretan du sorburua. Hirurogeita hamarreko hamarkadako mugimendu feministako emakumeek (gehienbat Estatu Batuetan, Frantzia, Alemanian, Italian, Japonian, Venezuelan, Australian eta Finlandian) gidatutako borrokek abiarazi zuten ikuspegi hau; hain zuzen ere, borroka ekologista, feminista, bakezale eta espiritualei buruz ari gara.

Ekofeminismoaren arabera, ordena sinboliko patriarkalean lotura estuak daude emakumeen eta naturaren mendekotasun eta esplotazioaren artean, nahiz eta harreman hori modu desberdinean ulertu. Emakumeak gizonen mendean egotea eta naturaren ustiakuntza txanpon beraren bi aldeak dira, bizitza metaketaren ideia azpiratzeko eta menderatzeko logikari jarraituz, betiere. Laburbilduz, esan dezakegu gaur egun bi pentsamendu-korronte nagusi daudela –ekofeminismo esentzialistak eta ekofeminismo konstruktibistak–; beraz, hobe da ekofeminismoez hitz egitea.

Ekofeminismo esentzialisten arabera, gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasun biologikoek –biza sortzeko eta hazteko ahalmena– kokatzen dituzte emakumeak naturatik gertuago, eta, beraz, bide ematen dute naturarekin identifikatzeko. Gizonak, arrazoiak gidatuta –emakumeen intuizioaren aurka–, kultura-arlokoak dira, eta arlo hori gorentzat hartzen da, natura kontrolatzeko eta eraldatzeko ahalmena duelako. Espiritualtasunarekiko eta mistizismoarekiko kezka zuen ekofeminismo horren ondotik, beste proposamen batzuk izan ziren. Horiek bizitzarekiko errespetuaren eramaile gisa nabarmendu zituzten emakumeak, eta Mendebaldeko garapen txarrari leporatu zioten emakumeen eta populazio indigenen pobrezia sorraraztea.

Bestetik, ekofeminismo konstruktibistaren arabera, ingurumeneko arazoak patriarkatuaren eta kapitalismoaren ondorioa dira, ez beste ezerena, naturaren esplotazioa zuzitzen baitute, aurrerapena indartzeko, hau da, gehienbat hazkunde ekonomikoa izateko. Bestetik, emakumeen eta naturaren arteko harreman estua eraikuntza sozial batean oinarritzen dela uste du, lanaren sexu-zatiketaren bidez rol eta zeregin desberdinak esleitzen dituelako. Ekologia eta pertsonen arteko harremanak ekonomiaren mende daudela salatzen du, baita hazkunde ekonomikoarekiko obsesioa ere.

Zenbait adierazle daude generoak garapenean duen zeregina neurtzeko. **Genero Garapenaren Indizea** Giza Garapenaren Indizearen antzekoa da, eta gizonen eta emakumeen artean dauden desparekotasun sozialak eta ekonomikoak neurtzen ditu. PNUDek prestatu du eta hiru osagai eta adierazle ditu: Bizitza luzea eta osasuntsua –sexu bakoitzak jaiotzean duen bizi-itxaropenaren bidez neurtua–; hezkuntza –espero diren eskolatzeko-urteak eta eskolaldiaren batez bestekoa, sexuaren arabera–; eta bizitza-maila duina –jasotako diru-sarreren zenbatespena, sexuaren arabera–.

Generoko Desparekotasunaren Indizeak generoko desparekotasuna neurtzen du, eta PNUDek sartu zuen 2010ean Giza Garapenari buruzko Txostenean. Neurri konposatua da, eta aukera ematen du generoko desparekotasunaren ondorioz herrialde baten barruan izandako lorpenen galera jakiteko. Hiru alderdi erabiltzen ditu: ugaltze-osasuna, ahalduntzea eta lan-merkatuan parte hartzea. Indize berria neurri esperimental gisa sartu zen, aurreko adierazleek zituzten gabeziak konpontzeko: **Genero Garapenaren Indizea** eta **Generoa Sustatzeko Indizea**, biak ala biak 1995eko Giza Garapenari buruzko Txostenean sartuak.

9. Ikuspegi postdesarrollistak

Laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera sortutako eta/edo agerian jarritako korronte postdesarrollisten ustez, garapenaren ekonomiatzat hartzen dena eraikuntza intelektual bat baizik ez da, eredu eta balio batzuk –mendebaldekoak– hedatzeko, justifikatzeko eta sustatzeko egina, bestelako kultura-erreferentziak eta gizartea antolatze eta naturarekin harremanetan jartzeko bestelako formak dituzten gizarteen ustezko atzerapena gainditzeko behar den akuilua.

Jarrera desberdinetatik planteatu eta azaldu da garapen kontzeptuaren arbuioa, hala haien sorburu eta oinarrietan, nola kultura-testuinguru desberdinetan hartu dituzten adierazpenetan –*antigarapena, garapenetik harantz, posgarapena*–. Denek arbuiatzen dute hala modernitatea, garapenaren erreferentzia nagusi gisa, nola gizartearen bilakaeraren ezaugarri desberdinak azal ditzakeen teoria bakar bat egoteko aukera. Korronte horien ustez, garapena eta azpigarapena errealtatea modu berean ikusten duten nozioak baizik ez dira, eta mendebaldeko begiradak baldintzatzen ditu erabat, ez baitira gai bestelako kulturen eta zibilizazioen balioak eta haiek gizakien ongizateari egindako ekarpena ulertzeko.

Korronte postdesarrollista nagusien artean, bi nabarmendu behar ditugu. **Desazkundera** korrontea hirurogeita hamarreko hamarkadan ingurumenaren iraunkortasunarekin izandako kezka eta iritzi berberen ondorioa da, baina, garapenaren inguruko pentsamendu-korronte gisa, joan den mendeko azken hamarkadan zabaldu da, batez ere Frantziatik, eta gehienbat Nazio Batuek garapen iraunkorraz egindako formulazioak dituen mugak agerian jartzeko. Garapen iraunkorra kontzeptua kritikatzan dute, garapen eta iraunkor hitzak bateraezintzat jotzen dituztelako. Garapena kontzeptu makurtzat dute, ez baitu bestelako interpretaziorik onartzen, bi mende hauetan ezagutu zaion errealtateaz kanpo.

Hona hemen desazkunderaren zortzi printzipioak: Birbalioztatzea: balio berriak (elkartasuna, kolektiboa, altruismoa, etab); Birkontzeptualizatzea: kontzeptu berriak (aberastasuna/pobrezia, urritasuna/oparotasuna, etab); Berregituratzea: balio berrien zerbitzuko ekoizpen-sistemak; Birbanatzea: aberastasuna, errenta eta lana; Birlokalizatzea: tokiko espazio hurbiletara itzultzea (kontsumoa, aurrezkoa eta inbertsioa); Gutxitzea: ondasun material gutxiago kontsumitzea; Berrerabiltzea: erabili eta botatzeko kulturaren kontra; Birziklatzea: berrerabiltzen ez dena.

Oraintsuago, ingurumenaren iraunkortasuna sustatzen duten korronteetan, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da desazkundera iraunkorraren ikuspegia. Haren arabera, oparotasunean dauden Mendebaldeko gizartearen esparruan, desazkundera ez da hartu behar egungo ongizate-mailaren murrizketa gisa, ezpada ongizatea handitzeko aukera moduan, ongizatea honela ulertuta: ez ondasun materialen metaketa mugagabe gisa, baizik eta aisialdiari, giza harremanei, zuzentasunari, justiziarri eta espiritualtasunari lehentasuna ematen dien bizimodu bezala. Ildo horretan, desazkundera iraunkorra trantsizioko eredu bat da, pertsona guztien oinarritzko beharrezko bidezko eran betetzeko aukera emango duen eredura aldatzeko, betiere, muga naturalen araberrako eskala fisikoari eutsita.

8. Taula. Desazkundeari eta sumak kawsay/sumak qamañari buruzko egileak eta lanak	
Egilea	Izenburua eta argitaratutako urtea
Serge Latouche,	<i>Garapenetik biziraunez: iruditeria ekonomikoaren deskolonizaziotik, gizarte alternatiboaren eraikuntzara</i> (2007); <i>Desazkundearen aldeko apustua: nola irten nagusi den iruditeriatik?</i> (2009), <i>Desazkundera eta posdesarrolloa: pentsamendu sortzailea, absurduaren ekonomiaren aurka</i> (2009)
Tim Jackson	<i>Hazkunderik gabeko oparotasuna: planeta mugatu baterako ekonomia</i> (2009)
Arturo Escobar	<i>La invención del Tercer Mundo, Construcción y deconstrucción del desarrollo</i> (1996). <i>La alternativa al modelo hegemónico de desarrollo capitalista es el concepto de Buen Vivir.</i> (2005)
Nina Pacari	<i>Sumak kawsay para que tengamos vida</i> (2013)
Carlos Viteri	<i>Ecuador: concepto de desarrollo según la cosmovisión indígena</i> (2006)
Pablo Dávalos	<i>Reflexiones sobre el sumak kawsay (el buen vivir) y las teorías del desarrollo</i> (2008)
Fernando Huanacuni	<i>Vivir Bien Buen Vivir: filosofía, políticas, estrategias y experiencias regionales andinas</i> (2010)
Alberto Acosta	<i>El Buen Vivir en el camino del posdesarrollo</i> (2010); <i>El Buen Vivir Sumak Kawsay, una oportunidad para imaginar otros mundos</i> (2013)
Eduardo Gudynas	<i>La dimensión ecológica del Buen Vivir: entre el fantasma de la modernidad y el desafío biocéntrico</i> (2009) <i>Buen vivir: germinando alternativas al desarrollo</i> (2011); <i>El posdesarrollo como crítica y el Buen Vivir como alternativa</i> (2014)
Álvaro García Linera	<i>Socialismo comunitario del Vivir Bien</i> (2014)
René Ramírez Gallegos	<i>La transición ecuatoriana hacia el Buen Vivir</i> (2010); <i>La felicidad como medida del Buen Vivir en Ecuador</i> (2011)
Ana María Larrea Maldonado	<i>La disputa de sentidos por el Buen Vivir como proceso contrahegemónico</i> (2010)

Iturria: Norberak egina

Bigarren ikuspegiak Andeetako eskualdeetan du sorburua eta Biziera ona izena du (*sumak kawsay/sumaq qamaña*). Proposamenak mundu indigenan du jatorria, baina, gero, Latinoamerikako pentsamendu kritikotik hedatu, eta garapenari buruzko eztabaidetara ere iritsi da.

Mendebaldeko pentsamenduaren kritika egiten dute, bestelako ezagutza-iturriak aintzat hartzen ez dituelako, batez ere jatorrizko herriena. Horrez gain, bestelako etimologiak daudela eta guztiz baliagarriak direla aldarrikatzen dute. Haien ustez, mendebaldeko ikuspegi horrek ezin du indigenen mundu-ikuskerara ulertu, mundu-ikuskerara horren oinarria munduan ikusteko, izateko eta existitzeko bestelako moduak daudela onartzea baita, eta bizitzaz egiten duen interpretazioak bestelako alderdi batzuk hartzen baititu kontuan, hala nola emozioena edo afektuena eta alde espiritualala. Mendebaldeko arrazionaltasun positibistak bazterrean uzten ditu alde horiek, ilogikotzat eta subjektibotzat jo ondoren.

Andeetako pentsamenduak printzipio filosofiko ugari ditu, besteak beste, bizitzaren esparru guztietan aplikatzen diren oinarritzko lau hauek: (a) *erlazionalitatea* –dena dago erlazioan guztiarekin, ezer ez da bere aldetik, munduaren ikuspegi holistikoa du–; (b) *osagarritasuna* –ez dago izakirik ez ekintzarik, osagarri gisa

kontrako alderdirik ez duenik–; (c) *egokitasuna* –errealitateko eremu edo arlo asko era harmoniatsuan etortzen dira bat–, eta (d) *elkarrekikotasuna* –ekintza bakoitzari elkarrekiko ekintza bat dagokio, gizakiek naturarekin eta kosmosarekin dituzten harremanak gizatzen dituen ekarpen osagarri gisa–.

Modernitatearen elementu batzuk berreskuratu ahal direla oinarritzat hartuta, kontzeptu berri bat azaldu da: *transgarapena*, ongizateari buruzko ikuspegi berri bat, transmodernitateari lotua. Bertan, komunitate bakoitzak zehaztu behar du haren esanahia, gizartearen beharrezan materialak –materialak eta immaterialak– asetzeko, eta parte-hartzearen bidez adostu behar ditu zein izango diren behar horiek eta zein baliabide erabili behar diren, betiere, zuzentasun sozialari eta ingurumenaren iraunkortasunari jarraiki.

Bibliografia

- ACOSTA, Alberto: Esperanza (2013): *El Buen Vivir. Sumak kawsay, una oportunidad para imaginar otros mundos*. Icaria-Antrazyt. Bartzelona.
- BASER, Heather; MORGAN, Peter (2008): "Capacity, Change and Performance. Study Report". *European Centre for Development Policy Management*. Discussion Paper 59 B. Hemen eskuragarri: <<http://siteresources.worldbank.org/INTCDRC/Resources/CapacityChangePerformanceReport.pdf>>.
- BERMEJO, Roberto (2011): *Manual para una economía sostenible*. Los Libros de la Catarata. Madril.
- BUSTELO, Pablo (1998): *Teorías contemporáneas del desarrollo económico*. Síntesis. Madril.
- CARRASCO, Cristina (2001): "La sostenibilidad de la vida humana ¿un asunto de mujeres?", *Mientras Tanto*, 82. zenb.
- CARRASCO, Cristina; BORDERÍAS, Cristina; TORNS, Teresa (Ed.) (2011): "El Trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas". Catarata. Madril. Hemen eskuragarri: <https://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/Economia_critica/El_trabajo_de_cuidados_C._Carrasco_C._Borderias_T._Torns.pdf>.
- CRUZ, Carmen (2007): "Género, derechos y desarrollo humano". PNUD. Hemen eskuragarri: <<http://www.otrodesarrollo.com/desarrollohumano/delaCruzGeneroDesarrolloHumano.pdf>>.
- DOYAL, Len, eta GOUGH, Ian. (1994): *Teoría de las necesidades humanas*. ICARIA-FUHEM, Bartzelona.
- IBARRA, Pedro. eta UNCETA, Koldo. (2001): *Ensayos sobre el Desarrollo Humano*. Icaria. Bartzelona.
- LATOUCHE, Serge (2009): *Decrecimiento y Postdesarrollo*. Icaria. Bartzelona.
- MARTINEZ-ALIER, Joan; ROCA, Jordi (2013): *Economía ecológica y política ambiental*. FCE. Mexiko.
- MAX-NEEF, Manfred. A. (1994): *Desarrollo a Escala Humana*. Nordan-Icaria. Bartzelona.
- MEIER, Gerald M. eta SEERS, Dudley (eds) (1986): *Pioneros del Desarrollo*. Tecnos. Madril.
- NAREDO, Jose Manuel (2006): *Raíces económicas del deterioro ecológico y social. Más allá de los dogmas*. Siglo XXI. Madril.
- NUSSBAUM, Martha (2012): *Las mujeres y el desarrollo humano*. Herder. Bartzelona.
- PNUD: *Informe Desarrollo Humano*. Zenbait urte.
- RIST, Gilbert (2002): *El Desarrollo: historia de una creencia occidental*. IUDC-La Catarata. Madril.
- SEN, Amartya (2000): *Desarrollo y Libertad*. Planeta. Bartzelona.
- TORTOSA, Jose Maria (2001): *El juego global. Maldesarrollo y pobreza en el sistema mundial*. Icaria. Bartzelona.

UNCETA, Koldo (2009): "Desarrollo, subdesarrollo, maldesarrollo y postdesarrollo. Una mirada transdisciplinar sobre el debate y sus implicaciones". *Carta Latinoamericana*, 7. zenb. Hemen eskuragarri: <<http://pdf2.hegoa.efaber.net/entry/content/455/CartaLatinoAmericana07Unceta09-1.pdf>>.

UNCETA, Koldo (2013): "Decrecimiento y Buen Vivir ¿paradigmas convergentes?", *Revista de Economía Mundial*, 35. zenb.

ZABALA, Idoye (1999): "Un viaje a través del tiempo: 30 años de pensamiento económico feminista en torno al desarrollo", CARRASCO, Cristina: *Mujeres y Economía: nuevas perspectivas para viejos y nuevos problemas*. Icaria. Barcelona.

1. Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak. Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.

